

GRADU AMAIERAKO LANEN ETA MASTER AMAIERAKO LANEN PROPOSAMENA 2022/23 IKASTURTE AKADEMIKOA CAMPUS BIZIA LAB PROGRAMA

Gradu Amaierako Lana

Izenburua

Ikastetxearen antolakuntza Lehen Hezkuntzan

Deskribapen laburra (gehienez 300 hitz)

Egungo hezkuntza sistema hobetzeko eta eraldatzeko proposamen berritzaileak egitea da helburu nagusia. Horretarako, aukera ezberdinak daude: proposamen baten diseinu zehatza (diseinua eta inplementazioa), ikerketa lan bat (ikastetxeren batean martxan dagoen eredu edo berrikuntza proiektu bat behatu eta aztertu) edo izaera mistoa duen lan bat.

Berrikuntza alorrean, berebiziko arreta jarriko zaio ikastetxeko mailari, xedea hezkuntza komunitate osoa inplikatzeko duen eta benetako eraldaketa ekarriko duen ekarpen bat egitea baita. Hori horrela, gelako didaktika espezifikotatik harago doan begirada zabala bermatuko da. Hori egikaritzeko, errealitate batetik abiatuko da, alegia, ikastetxe batek identifikatutako behar batetik.

Horren baitan, hainbat izan daitezke hauta daitezkeen esparruak:

- Justizia sozialera bideratutako eskola demokratikoaren eraikuntza
- Hezkuntza komunitate osoaren inplikazioa
- Ikasleen eta familien parte-hartze zuzena eta errealia ikastetxean
- Lidergo motak ikastetxean
- Gatazken kudeaketa ikasgelan eta ikastetxean (autoritatea, diziplina, lanketa emozionala, gelako klima...)
- Ikas-komunitateak
- Metodologiak: I+Z, talde interaktiboak, tertulia dialogikoak, proiektuetan oinarritutako ikaskuntza, arazoetan oinarritutako ikaskuntza...
- Ko-irakaskuntza
- Irakasle eta ikasleen arteko elkarrekintzak
- ...

Lana I+Z metodologiaren bitartez landuko da, ikastetxeari berari zerbitzua eskainiz, edota ikastetxea ez den baina hezkuntzarekin lotura zuzena daukan bestelako erakunderen

bati. Modu horretara, GRALeko ikasleak konpetentzia profesionalak eta pertsonalak garatuko ditu bidean, komunitatean ardaztutako metodologiaren bitartez.

Ikaslea aukeratzeko hautaketa-irizpideak

Campusa

Araba

Ikastegia (Fakultatea/ Eskola)

Hezkuntza eta Kirol Fakultatea

Titulazioa

Haur eta Lehen Hezkuntzan Gradua

Elaboraziorako eta defentsarako hizkuntza

Euskara

Irakasle arduraduna

Haizea Galarraga

Posta elektronikoa

haizea.galarraga@ehu.eus

Campus Bizia Lab (CBL) proiektua

Errealitateak eraldatuz

CBL proiektuaren webgunea

<https://www.ehu.eus/eu/web/iraunkortasuna/transformando-realidades>